5.– Editran-ek amaiera adierazten duenean hartuko da ontzat fitxategien igorpena, une horretan burutuko delarik bidalgaiaren komunikazio osoa.

Edozein arrazoirengatik informazioaren igorle edo jasotzaileak saio berean artxibategi bat baino gehiago bidali behar izanez gero, hainbat artxibategi logikodun artxibategi fisiko bakarrean bidali ahal izando dira, aurrekoen lotura soil bezala eta egitura logikoa apurtu gabe, alderdien aldez aurretiko adostasunez.

*8. artikulua.–* Informazio-euskarriak gordetzeko betebeharra.

Gordetzekoak diren kobrantza-agiriak eta erakunde kolaboratzaile diren aldetik burututako eragiketei dagozkien erregistro informatikoak gorde beharko dituzte erakunde kolaboratzaileek, eta beharrezkoa izanez gero diru-zaintzan eskumena duen sailaren eskura jarri balioztatze-dataren ondorengo sei urtez. Telematika bidez egindako ordainketei dagokienez, betebehar horiek Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Aginduan xedatutakoaren arabera egiten diren erreferentzia-zenbaki osoak sortzeko euskarri informatikoei dagozkie. Agindu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren zuzenbide publikoko sarreren ordainketa Ordainketa Pasabidearen bidez egitea arautu zuen.

*9. artikulua.–* Erakunde kolaboratzaile gisa jarduteko baldintzak.

1.– Diruzaintzan eskumena duen sailak baimendutako kreditu-erakundeek, hau da, bankuek, aurrezki-kutxek eta kreditu-kooperatibek jardun ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiko diru-bilketaren kudeaketan erakunde kolaboratzaile gisa.

Eskatutako baimena ematea komeni den ala ez behar den bezala balioztatzeko, ondoko baldintzak betetzeaz gain kontuan hartuko da diru-bilketako lankidetza-zerbitzuan zenbateraino izango den lagungarri.

2.– Baimena lortzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte kreditu-erakundeek.

a) Agindu honen eranskinean jasota dauden eta lankidetza-zerbitzuaren alderdi guztiak betetzea ahalbidetzen duten baliabide tekniko, elektroniko, informatiko eta telematikoak izatea beren sare osoan edo zati batean.

b) Lankidetza-zerbitzua emateko gutxienez 50 bulego jardunean izatea Euskal Autonomia Erkidegoan.

c) Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2008ko apirilaren 11ko Aginduan ezarri bezala Ordainketa Pasabidea erabiltzeko aukera emateko moduan iza-

5.– Una transmisión de ficheros se dará como satisfactoria cuando Editran comunique el fin de la misma, momento en el que se habrá completado la comunicación de todo el objeto de envío.

Si por alguna razón el emisor o el receptor de la información tuvieran que enviar más de un archivo en la misma sesión, éstos se podrán enviar como varios archivos lógicos en un único archivo físico, como simple concatenación de los anteriores y sin romper su estructura lógica, previo acuerdo de las partes.

*Artículo 8.–* Deber de conservación de soportes de información.

Las entidades colaboradoras estarán obligadas a conservar y, en su caso, poner a disposición del Departamento competente en materia de tesorería durante los seis años siguientes a la fecha de validación, los documentos acreditativos del cobro que deben obrar en su poder, así como los registros informáticos relativos a las operaciones realizadas en su condición de entidad colaboradora. Respecto a los pagos realizados telemáticamente, estas obligaciones se referirán a los soportes informáticos, relativos a la generación de los números de referencia completos, que se realizarán de acuerdo con lo dispuesto en la Orden de 11 de abril de 2008 de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, reguladora del pago de ingresos de derecho público de la Hacienda General del País Vasco a través de la Pasarela de Pagos.

*Artículo 9.–* Requisitos para actuar como entidad colaboradora.

1.– Podrán actuar como entidades colaboradoras en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco los Bancos, Cajas de Ahorro y Cooperativas de Crédito, en adelante entidades de crédito, que sean autorizadas por el Departamento competente en materia de tesorería.

Para valorar adecuadamente la conveniencia de conceder la autorización solicitada, se tendrá en cuenta, además del cumplimiento de los siguientes requisitos, su posible contribución al servicio de colaboración en la recaudación.

2.– Para obtener la autorización, las entidades de crédito deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Disponer en todo o en parte de su red de los medios técnicos, electrónicos, informáticos y telemáticos que permitan la realización del servicio de colaboración en todos sus aspectos y que son recogidos en el anexo de esta Orden.

b) Disponer permanentemente en el territorio de la Comunidad Autónoma de Euskadi de al menos 50 oficinas operativas con las que prestar el servicio de colaboración.

c) Encontrarse en disposición de facilitar la utilización de la «Pasarela de Pagos» en los términos previstos en la Orden de 11 de abril de 2008 de la Conseje-

tea. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren zuzenbide publikoko sarrerak Ordainketa Pasabidearen bidez ordaintzea arautu zen.

d) Diru-bilketaren lankidetza-zerbitzua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan emateko aukera egiaztatzea.

e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatea.

f) Telematika edo euskarri magnetikoko bitarteko bidez eta modu zentralizatuan bankuko kontuetan eskudiruaren enbargo-prozeduretara atxikita egotea.

*10. artikulua.*– Baimena emateko prozedura.

1.– Baimena emateko prozedura diru-zaintzan eskumena duen sailari bidalitako eskariaren bitartez hasiko da, eta ondoko informazio eta agiriak izan beharko ditu:

a) Kreditu-erakundearen identifikazio-datuak.

b) Erakundean egindako kobrantzak zentralizatuko dituen bulegoaren helbidea eta banku-gakoa eta diru-zaintzan eskumena duen zuzendaritzarekin hizketakide izateko izendatutako pertsona edo pertsonak.

c) Agindu honen xedea den zerbitzua emango duen erakunde kolaboratzaileen zerrenda Euskal Autonomia Erkidegoan, bakoitzaren helbidea eta banku-gakoa adieraziz.

d) Berariazko aitormena, agindu honetan ezarritako baldintzetan lankidetza-zerbitzua emateko gai dela eta aurreko artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituela adieraziz.

e) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak ordainduta izatearen egiaztagiria.

2.– Eskariaren gaineko ebazpena emateko, diru-bilketako lankidetza-zerbitzuari erakundeak egin diezaiokeen ekarpena eta eskatutako betekizunak bete direla egiaztatzeko beharrezko irizten dituen egiaztapenak egin eta txostenak eskatu ahal izango ditu diruzaintzan eskumena duen sailak.

3.– Baimen-eskaria diru-zaintzako gaietan eskumena duen sailak ebatziko du saileko titularraren agindu bidez.

Erakunde kolaboratzaile izaera diru-bilketaren kudeaketan eskumena duten organoei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Baimen-eskarian zerbitzua emateko bulegoen zerrendan dauden erakunde kolaboratzaileen bulegoak hartuko ditu bere barne baimenak.

Zerbitzua emateko bulego berri bat gaitzeak ez du esan nahi baimen berria eskatu behar denik, diru-bil-

ra de Hacienda y Administración Pública, reguladora del pago de ingresos de derecho público de la Hacienda General del País Vasco a través de la pasarela de pagos.

d) Acreditar la posibilidad de prestar el servicio de colaboración en la recaudación, en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

e) Encontrarse al corriente de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

f) Estar adheridas a los procedimientos de embargo de efectivo en cuentas bancarias de forma centralizada a través de medios telemáticos o de soporte magnético.

*Artículo 10.*– Procedimiento para la autorización.

1.– El procedimiento para la autorización se iniciara mediante solicitud remitida al Departamento competente en materia de tesorería que deberá contener la información y documentos siguientes:

a) Datos identificativos de la entidad de crédito.

b) Dirección y clave bancaria de la oficina en la que se vayan a centralizar los cobros realizados en la entidad y persona o personas designadas como interlocutoras con la Dirección competente en materia de tesorería.

c) Relación de oficinas en la Comunidad Autónoma con las que la entidad colaboradora prestará el servicio objeto de esta Orden, incluyendo para cada una de ellas su dirección y clave bancaria.

d) Declaración expresa de cumplir todos los requisitos establecidos en el artículo anterior y estar en disposición de prestar el servicio de colaboración en las condiciones establecidas en la presente Orden.

e) Certificaciones acreditativas de encontrarse al corriente de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social impuestas por las disposiciones vigentes.

2.– Con objeto de resolver sobre la solicitud, el Departamento competente en materia de tesorería podrá realizar comprobaciones y solicitar cuantos informes considere oportunos para verificar el cumplimiento de los requisitos exigidos y la posible contribución de la entidad al servicio de colaboración en la recaudación.

3.– El Departamento competente en materia de tesorería resolverá por Orden de su titular, la solicitud de autorización.

La condición de entidad colaboradora se pondrá en conocimiento de los órganos competentes en materia de gestión recaudatoria y se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco.

4.– La autorización amparará a las oficinas de la entidad colaboradora que hayan sido relacionadas para la prestación del servicio en la solicitud de autorización.

La habilitación de nuevas oficinas para la prestación del servicio no conllevará el deber de solicitar nueva au-

keta gaietan eskumena duen sailari inguruabar hori jakinarazteko betebeharra alde batera utzi gabe.

5.– Baimenaren jakinarazpena egin eta 5 eguneko epean eta lankidetza-zerbitzua ematen hasi aurretik, diru-bilketan eskumena duen sailari ondokoa jakinarazi beharko diote erakunde kolaboratzaileek:

a) zerbitzua ematen hasteko eguna edo egunak. Data hori betiere baimena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera bi hilabeteko epe barrukoa izango da.

b) diru-sarrerak egingo direneko kontu bereziaren kodifikazioa, bezeroaren kontu-kode normalizatuaren egitura izango duena.

6.– jardueran aritzeko betekizunetan edo eskarian jarritako datuetan sortzen diren aldaketak diru-bilketan eskumena duen sailari jakinarazi beharko dizkiote erakunde kolaboratzaileek.

*11. artikulua.*– Erakunde kolaboratzaileen jardueraren kontrola eta jarraipena.

1.– Erakunde kolaboratzaileen jardueraren jarraipena egiteko ardura diru-bilketaren kudeaketan eskumena duten diru-bilketako organoek izango dute.

2.– Agindu honek arautzen duen erakunde kolaboratzaileen jarduera egiaztatu ahal izango du diruzaintzako gaietan eskumena duen sailak.

Jakineko denbora batez aipatu erakundeek edo haien bulegoek izan duten lankidetza-jarduerari edo hainbat eragiketen agiriak ikuskatzeari buruzkoak izango dira egiaztapen-jarduerak.

3.– Egiaztapenak egiteko, kolaboratzaile diren aldetik erakundeen jarduerari buruzko agiri guztiak horretarako izendatutako funtzionarioen esku jarri beharko dituzte erakunde kolaboratzaileek.

*12. artikulua.*– Baimenari uko egitea.

Erakunde kolaboratzaile gisa jarduteko baimena uko egin ahal izango diote kreditu-erakundeek. Ondorio horietarako, erakunde kolaboratzaile gisa egingo dituen eragiketei amaiera emateko data baino gutxienez bi hilabete lehenago, lankidetza-zerbitzua emateari utzi nahi dion kreditu-erakundeak diru-bilketan eskumena duen sailari jakinarazi beharko dio inguruabar hori.

*13. artikulua.*– Baimena etetea eta baliogabetzea.

1.– Erakunde kolaboratzaileek Agindu honetan eta gainerako arau ezargarrietan adierazitako betebeharrak hausten dituztenean, emandako baimena aldi baterako eten edo betiko baliogabetu ahal izango da, laneko lu-

torización, sin perjuicio de la obligación de comunicar tal circunstancia al Departamento competente en materia de tesorería.

5.– En el plazo de 5 días desde la notificación de la autorización, y antes del inicio del servicio de colaboración las entidades colaboradoras deberán comunicar al Departamento competente en materia de tesorería la información siguiente:

a) Fecha o fechas de comienzo de la prestación que, en ningún caso, podrán exceder de dos meses, contados a partir del día siguiente al de la notificación de la autorización.

b) La codificación de la cuenta especial en la que se realizaran los ingresos y que tendrá la estructura normalizada de código cuenta cliente.

6.– Las entidades colaboradoras deberán poner en conocimiento del Departamento competente en materia de tesorería toda modificación que se produzca en los requisitos para el desempeño de la actividad o en los datos consignados en la solicitud.

*Artículo 11.*– Control y seguimiento de la actuación de las entidades colaboradoras.

1.– Los órganos de recaudación competentes en cada momento para la gestión recaudatoria, serán los encargados de efectuar el seguimiento de la actuación de las entidades colaboradoras.

2.– El Departamento competente en materia de tesorería podrá realizar comprobaciones en la actividad de las entidades colaboradoras regulada por esta Orden.

Las actuaciones podrán referirse al examen de la documentación relativa a operaciones concretas o extenderse a la actuación de colaboración de dichas entidades o de sus oficinas durante un período determinado de tiempo.

3.– Para la práctica de las comprobaciones, las entidades colaboradoras deberán poner a disposición de los funcionarios designados al efecto, toda la documentación que se les solicite en relación con la actuación de la entidad en su condición de colaboradora.

*Artículo 12.*– Renuncia a la autorización.

Las entidades de crédito podrán renunciar a la autorización para actuar como entidad colaboradora. A tales efectos, aquella que deseé cesar en la prestación del servicio de colaboración deberá comunicarlo al Departamento competente en materia de tesorería con, al menos, dos meses de antelación a la fecha en la que pretenda finalizar las operaciones como entidad colaboradora.

*Artículo 13.*– Suspensión y revocación de la autorización.

1.– Cuando las entidades colaboradoras incumplan las obligaciones establecidas en esta Orden y demás normas aplicables se podrá suspender temporalmente o revocar definitivamente la autorización otorgada, restrin-

rralde-eremua aldi baterako edo betiko mugatu edo bulegoetako bat lankidetza-zerbitzua eskaintzetik salbuetsi, kasu bakoitzean dagokion arduraren kalterik gabe.

2.– Dagokion kontraesaneko administrazio-espedientearen instrukzioa egin ondoren, diruzaintza-gaietan eskumena duen saileko titularrak baimena eten, mugatu edo baliogabetu ahal izango du.

3.– Eteteko, mugatzeko edo baliogabetzeko erabakia hartzeko, hurrengo gertaeraren bat, besteren artean, aintzat hartu ahal izango du eskumena duen organoak:

a) Eskumena duen diru-bilketa organoari erakunde kolaboratzaileak eskaini behar dion informazioa, behin eta berriz, ezarritako epez kanpo, osatu gabe edo hutsune larriekin aurkeztea.

b) Eskumena duen diru-bilketa organoari eskaini behar dion informazioan, erakundeak zaindu behar duenean edo ordaintzaileei eskuratu behar dien informazioko datuen erabilera okerra.

c) Diru-bilketan garrantzia duten edozein datu, txosten edo aurrekari emateko edo adierazteko betebeharrak haustea.

d) Enbargo-aginduak ez betetzea eta kautela- edo berme-neurria ezarria duten edo enbargatutako ondasunak kentzen parte hartzea edo onartzea.

e) Diruzaintza-gaietan eskumena duen sailak burutu behar duen erakunde kolaboratzaileen jardunaren kontrol- eta egiaztapen-lana oztopatzea.

f) Eskudun den diru-bilketa organoaren kontuan bildutako kopuruen sarrera egunero ez burutzea, Herri Ogasunari edo ordaintzaileari kalte larria sortu zaionean.

g) Erakundearen bidez egindako ordainketa-kopuru eskasa edo hutsa dela-eta erakutsitako eraginkortasunik eza.

4.– Erakunde kolaboratzaile gisa aritzeko baimena eteteko, mugatzeko edo baliogabetzeko erabakiak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren diru-bilketaren kudeaketan kolaboratzaile diren eta Agindu hau argitaratu ondoren kolaboratzaile izaten jarraitu nahi duten kreditu-erakundeek, baimena eskatu beharko dute, 10. artikuluan ezarritakoaren arabera, arau hau indarrean jarri ondoko bi hilabeteko epean, eta baimen-eskaria ebatzi arte indarrean dagoen prozedurarekin bat jarraituko dute lankidetzan.

gir temporal o definitivamente el ámbito territorial de su actuación o excluir de la prestación del servicio de colaboración a alguna de sus oficinas, sin perjuicio de la responsabilidad que en cada caso proceda.

2.– Corresponderá al titular del Departamento competente en materia de tesorería acordar la suspensión, restricción o revocación de la autorización, previa instrucción del oportuno expediente administrativo contradictorio.

3.– Para la adopción del acuerdo de suspensión, restricción o revocación, el órgano competente podrá tener en cuenta, entre otras, alguna de las siguientes circunstancias:

a) Presentación reiterada fuera de los plazos establecidos, de forma incompleta o con graves deficiencias, de la información que como entidad colaboradora debe aportar al órgano de recaudación competente.

b) Manipulación de los datos contenidos en la información que debe aportar al órgano de recaudación competente, en la que debe custodiar la entidad o en la que debe entregar a los obligados al pago.

c) Incumplimiento de las obligaciones de proporcionar o declarar cualquier tipo de datos, informes o antecedentes con trascendencia recaudatoria.

d) Incumplimiento de las órdenes de embargo, así como la colaboración o consentimiento en el levantamiento de bienes embargados o sobre los que se haya constituido una medida cautelar o una garantía.

e) Obstrucción a la labor de control y comprobación de la actuación de las entidades colaboradoras a realizar por el Departamento competente en materia de tesorería.

f) No realizar diariamente el ingreso de las cantidades recaudadas en la cuenta del órgano de recaudación competente cuando se haya ocasionado un grave perjuicio a la Hacienda Pública o a un obligado al pago.

g) Ineficacia manifestada por el nulo o escaso volumen de pagos realizados a través de la entidad.

4.– Los acuerdos de suspensión, restricción o revocación de la autorización para actuar como entidad colaboradora serán publicados en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Las entidades de crédito que en la actualidad cooperan en la gestión recaudatoria de la Hacienda General del País Vasco y pretendan continuar haciéndolo tras la publicación de la presente Orden, deberán solicitar autorización, conforme a lo dispuesto en el artículo 10, en el plazo de dos meses desde la entrada en vigor de la presente norma y seguirán cooperando de acuerdo con el protocolo vigente hasta que se resuelva la solicitud de autorización.

Ezarritako epean eskaria ez aurkezteak edo baimena ez emateak burutu izan duten lankidetzari uztea ekarriko du berekin.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Ordainketa Pasabidearen bidez egindako ordainketen kudeaketan lankidetza dagokion berariazko araudiak arautuko du, eta horrelakorik ez badago Agindu honek.

*Bigarrena.–* Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 11.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La falta de presentación de solicitud en el plazo establecido o la denegación de la autorización implicaran el cese en la cooperación que venían realizando.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* La colaboración en la gestión de los pagos realizados a través de la Pasarela de Pagos se regirá por su normativa específica y supletoriamente por esta Orden.

*Segunda.–* La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 2008.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

ERANSKINA

| Funtzionaltasuna | Nahitaezko baldintza | Aukerako baldintza |
|---|---|---|
| Bi hizkuntzatan (Euskara / Gaztelania) | Bai | |
| Datuen lehen pantaila. | Bai. | |
| Beraren banka elektronikoaren bidezko ordainketa. | Bai. | |
| Txartelaren identifikazioaren bidezko ordainketa. | Bai, bezero guziei banka elektronikoa zabalduta ez duten KEKentzat. | |
| Ordainketa bakoitzeko banakako EZO ateratzea. | Bai. | |
| 57. Koadernoa. | Bai. | |
| Estandarra ez den 57. Koadernoa. | Bai, Eusko Jaurlaritzaren KEKentzat | |
| 60. Koadernoa. | Bai. | |
| Ordainketa leihatilan. | Bai. | |
| Multzokako ordainketa. | Bai, Eusko Jaurlaritzaren KEKentzat | |
| Eragiketen emaitzaren on-line erantzuna, banakako nahiz multzokako ordainketetarako. | Bai. | |
| BKG erabiliz egindako ordainketaren egoeraren egiaztapena. | Bai. | |
| EZO erabiliz egindako ordainketaren egoeraren egiaztapena. | Bai. | |
| 24 orduko zerbitzua: ordainketa egiten den data berean jasoko dira kontuan ordainketak, KEKaren eragiketen itxiera-ordua 24:00 orduak baino lehenagokoa izan arren. | Bai. | |
| Aurreko atala burutu ezingo balitz, eta kobraketen azken eguneko ordain-agirien kasuan, KEKak ordainagiria ezin dela ordaindu jakinaraziko dio bezeroari, KEKak berak burutu duen eragiketen itxiera dela-eta. | Bai. | |
| 57. eta 60. Koadernoen ordainketetan dagozkien ziurtagiriak jaulkitzea. | Bai. | |
| 57. eta 60. Koadernoen ordainketei dagozkien ziurtagiri bikoiztuaren jaulkipena, leihatilako odainketaren funtzionaltasunaren bidez. | Bai. | |
| ST Birtuala | Ez, erakunde esleipendunarentzat izan ezik | |

*ANEXO*

| *Funcionalidad* | *Requisito necesario* | *Requisito opcional* |
|---|---|---|
| *Bilingüe (Euskera / Castellano)* | *Sí* | |
| *Primera pantalla de datos* | *Sí* | |
| *Pago a través de su banca electrónica* | *Sí* | |
| *Pago mediante identificación de tarjeta* | *Sí, para las ECC que no tengan extendida la banca electrónica a todos sus clientes.* | |
| *Emisión de NRC individual para cada pago* | *Sí* | |
| *Cuaderno n.º 57* | *Sí* | |
| *Cuaderno n.º 57 no estándar* | *Sí, para las ECC del Gobierno Vasco* | |
| *Cuaderno n.º 60* | *Sí* | |
| *Pago en ventanilla* | *Sí* | |
| *Pago por lotes* | *Sí, para las ECC del Gobierno Vasco* | |
| *Respuesta on-line del resultado de las operaciones, tanto para pagos individuales como lotes de pagos* | *Sí* | |
| *Consulta del estado del pago utilizando el CSB* | *Sí* | |
| *Consulta del estado del pago utilizando el NRC* | *Sí* | |
| *Servicio 24 horas: los pagos se materializarán en la cuenta en la misma fecha en que el pago se produzca, con independencia que la hora de cierre de las operaciones de la ECC sea anterior a las 24:00 h.* | *Sí* | |
| *Si el apartado anterior no pudiera materializarse, y en el caso de los recibos en su último día de cobro, la ECC informará a su cliente que dicho recibo no puede ser abonado debido al cierre de operaciones que ha realizado la propia ECC.* | *Sí* | |
| *Emisión del justificante correspondiente en los pagos de los Cuadernos* | *Sí* | |
| *n.º 57 y 60.* | | |
| *Emisión de justificante duplicado correspondiente en los pagos de los Cuadernos n.º 57 y 60, mediante la funcionalidad de pago en ventanilla.* | *Sí* | |
| *TPV Virtual* | *No, salvo para la entidad adjudicataria* | |